

**EUSKALTEL SAK** (*Euskaltel* edo *Sozietatea*), Sozietatearen akzioak saltzeko eskaintza eta negoziatorako onartzea dela-eta aurkeztutako informazio-liburuxkan jasotakoaren arabera, zeina Baloreen Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistro ofizialetan inskribatua baitago 2015eko ekainaren 19ko datarekin (*Liburuxka*), idatzi honen bidez, informazio hau ematen du:

### INFORMAZIO GARRANTZITSUA

Gaurko egunez, merkatuaren kondizioak aztertu ondoren eta Euskaltelen (*Eskaintza*), Kutxabank SAren, Araba Gertu SAren, International Cable BVren eta Iberdrola SAren (*Akziodun Eskaintzaileak*) akzioen salmenta-eskaintzaren eskaeraren prospekzio-aldian erregistratutako eskaera (*bookbuilding*) aztertu ondoren, JP Morgan Securities plc eta UBS Limited erakundeekin izandako negoziatioetan (*Erakunde Koordinatzaile Orokorrak*), Eskaintzaren behin betiko prezioa akzioko 9,50 euroan ezarri dute (*Eskaintzako Prezioa*). Liburuxkan jasotako prezio-tarte adierazgarriaren barruan sartzen da Eskaintzako Prezioa (akzioko 8,70 eurotik 11,05 eurora bitartean), eta, Euskaltelentzat, hasierako burtsako kapitalizazioa 1.202 milioi euro da.

Halaber, Eskaintzako Prezioa ezarri ondoren, Euskaltelek eta Akziodun Eskaintzaileek dagokion aseguramendu-kontratua sinatu dute (*Aseguramendu Kontratua*) Erakunde Koordinatzaile Globalekin, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria SArekin, Citigroup Global Markets Limited-ekin, Banco Santander SArekin, Caixabank SArekin, JB Capital Markets SV SAUrekin, Norbolsa SV SArekin eta Nmas1 Equities SV SArekin (azken horrek sinatu du Aseguramendu Kontratua, baina agente kolokatzaille gisa bakarrik, hau da, aseguramendu-konpromisorik hartu gabe) (*Erakunde Kolokatzailleak*), eta aldaketarik ez da izan ez Erakunde Kolokatzailleetan, ez haietako bakoitzak aseguraturutako ehunekoetan (Liburuxkako *Plan of Distribution – The Underwriting Agreement* atalean adieraziak).

Eskaintzako Prezioa esleitzeko eta inbertitzaileek ordaintzeko egutegia Liburuxkako *Expected Timetable of Principal Events and Offer Statistics* atalean dago, eta hau da:

Jarduera	Data
Aseguramendu Kontratua sinatzea .....	2015eko ekainaren 29a
Akzioak erosteko proposamenen hautaketa .....	2015eko ekainaren 30a
Akzioak erosteko proposamenen berrespena .....	2015eko ekainaren 30a
Akzioen esleipena (“Eragiketa-data”) .....	2015eko ekainaren 30a
Akzioak negoziatorako onartzea eta egonkortze-aldiaren hasiera .....	2015eko uztailearen 1a
Likidazio-data .....	2015eko uztailearen 3a
Egonkortze-aldiaren bukaera .....	2015eko uztailearen 3a

Bestalde, Madril, Bartzelona, Bilbo eta Valentziako balore-burtsetan akzioen negoziazioa onartzen den datatik aurrera (2015eko uztailaren 1erako aurreikusia), egun hori barne, eta 30 egun naturaletan, data horretatik kontaktzen hasita, UBS Limited-ek (*Egonkortze Agentea*), Erakunde Kolokatzailak ordezkatzuz, egonkortze-eragiketak egin ahal izango ditu, Batzordearen 2003ko abenduaren 22ko (CE) 2273/2003 Araudiaren arabera (finantza-tresnak berriro erosteko eta egonkortzeko programetako salbuespenei buruzkoa). Egonkortze-eragiketa horien helburua hau da: Euskaltelen akzioen merkatuko prezioari laguntzea. Dena den, ez da segurua jarduera horiek egingo diren, eta, hasiko balira, edozein unetan eten ahal izango lirateke.

Alde horretatik, Egonkortze Agenteak, bere izenean eta Erakunde Kolokatzailen kontura, balore-mailegu bat sinatu du International Cable BVrekin eta Kutxabank SArekin, Euskaltelen 8.040.893 akzio mailegatzeko, kapital sozialaren % 6,35 gutxi gorabehera, eta Eskaintzaren helburuko akzioen hasierako kopuruaren % 10,00, Eskaintzan berresleitzeko. Erosketa-aukera (*Over-allotment Option*) bidez itzuli ahal izango da mailegu hori; Akziodun Eskaintzaile horiek Erakunde Koordinatzaile Orokorrei emango die aukera hori, Erakunde Kolokatzailen izenean jardunez, eta akzio-kopuru berari dagokionez.

Azkenik, Eskaintzako Prezioa finkatu ondoren zehaztutako gai hauen berri ematen dugu, Liburuxkan hasieran zegoen informazioari dagokionez:

- (a) Zuzendaritzaren pizgarri-planen (*Management Incentive Plans*) eta inbertsio-kontratuen (*Investment Agreements*) likidaziotik lortutako zenbateko gordina 41.019.056 euro da, eta zenbateko garbia, berriz, 22.045.425 euro, xehatze honen arabera:

	Zenbateko gordina	Zenbateko garbia
<b>Onuradurak</b>	<b>(€)</b>	<b>(€)<sup>(1)</sup></b>
Alberto García Erauzkin <sup>(2)</sup> .....	9.126.831	5.129.730
Kudeaketa-taldea <sup>(3)</sup> .....	27.607.609	15.101.267
Beste zuzendari batzuk <sup>(4)</sup> .....	2.846.793	1.814.428
Richard Alden <sup>(5)</sup> .....	1.437.823	-
<b>Totala</b> .....	<b>41.019.056</b>	<b>22.045.425</b>

- (1) Alde batera uzten dira Sozietateak egindako atxikipenak eta onuradunek ordaindu beharreko zergen kalkuluari dagozkienak.
- (2) Barnean hartzen dira zuzendaritzaren pizgarri-planen (*Management Incentive Plans*) nahiz inbertsio-kontratuaren (*Investment Agreement*) likidaziotik lortutako zenbatekoak.
- (3) *Senior Management*, bederatzi kidek osatua.
- (4) *Other managers*, beste hamalau langilek osatua.
- (5) Inbertsio-kontratua (*Investment Agreement*) eta negozioko aholkularitza-kontratuaren likidaziotik lortutako zenbatekoa.

- (b) Zuzendaritzaren pizgarri-planen (*Management Incentive Plans*) onuradunek eta Alberto García Erauzkin jaunak (dagokion inbertsio-hitzarmen edo *Investment Agreement*-aren arabera) Sozietatearen akzio arruntetan berriro inbertitzeko helburuko zenbateko totala 11.022.717 euro da, Sozietatearen akzio arrunten zenbateko totalaren baliokidea (1.160.286 akzio), hau da, kapital sozialaren % 92. Hori guztia, xehatze honen arabera:

**DOKUMENTU HAU EZIN DA BANATU ETA ARGITARATU EZ OSORIK EZ ZATIKA, EZ ZUZENEAN, EZ ZEHARKA, HERRIALDE HAUETAN EDO HAUETARAKO: ESTATU BATUAK, KANADA, AUSTRALIA, JAPONIA EDO DOKUMENTU HAU BANATZEA EDO ARGITARATZEA INDARREAN DAGOEN LEGEDIA EDO ARAUDIA EZ BETETZEA DAKARREN BESTE EDOZEIN HERRIALDE.**

**Berrinbertsioaren  
zenbatekoa****Akzio arruntak (€)****Onuradunak**

Alberto García Erauzkin <sup>(1)</sup> .....	2.564.867	269.986
Kudeaketa-taldea <sup>(2)</sup> .....	7.550.638	794.804
Beste zuzendari batzuk <sup>(3)</sup> .....	907.212	95.496
<b>Totala</b> .....	<b>11.022.717</b>	<b>1.160.286</b>

(1) Barnean hartzen dira zuzendaritzaren pizgarri-planen (*Management Incentive Plans*) nahiz inbertsio-kontratuaren (*Investment Agreement*) likidazioaren ondorio diren zenbatekoak.

(2) *Senior Management*, bederatzi kidek osatua.

(3) *Other managers*, beste hamalau langilek osatua.

Horrez gain, Sozietateari jakinarazi zaio bai Alberto García Erauzkinek (dagokion Inbertsio Hitzarmena edo *Investment Agreement* sinatuta), bai Zuzendaritzako kideen Pizgarri Planen onuradun guztiek (*Management Incentive Plans*) adostu dutela Sozietatearen akzioetan berriro inbertitzea aipatutako plan eta kontratu horien pean lortutako gainerako etekinak, % 100era iritsi arte, horiei dagozkien zerga fiskalak kendu ondoren. Berrinbertsio hori norberaren izenean egingo da, egonkortze-fasea amaitu ondoren, eta hala eskuratutako akzioak 360 egunez ez transmititzeko konpromisoari lotuta daude (*lock-up*), negoziatzera onartutako datatik, Liburuxkan deskribatutako baldintzetan. Berrinbertsio-konpromiso horien ondorioz eskuratutako guztizko azken akzio-kopurua zenbatekoa den jakinaraziko diote Baloreen Merkatuaren Batzorde Nazionalari kontseilariak eta zuzendaritzako goi-kargudunek, 2007ko urriaren 19ko 1362/2007 Errege Dekretuan eta azaroaren 11ko 1333/2005 Errege Dekretuan aipatutakoari jarraikiz.

- (c) Langileei doan emateko sozietateak eskuratuko dituen akzioen zenbatekoa 3.606.324 eurokoa izango da, zeinak 379.613 akzioen balioa d baitu. Akziook sozietatearen kapital sozialaren % 0,30 ordezkatzen dute.
- (d) Erakunde Kolokatzailleek egonkortu beharreko akzioen azken kopurua (Nmas1 Equities, SV, SA salbu) 86.909.924 da, erosketa-aukera duten akzioak barne (*Over-allotment Option*).
- (e) Sozietateko akziodunen Ez-ohiko Batzar orokorrarekin adostutako aparteko dibidenduaren zenbatekoa 207.032.617 euroan finkatuta geratu da azkenean.

Bilbon, 2015eko ekainaren 29an

**Euskaltel SA**

**DOKUMENTU HAU EZIN DA BANATU ETA ARGITARATU EZ OSORIK EZ ZATIKA, EZ ZUZENEAN, EZ ZEHARKA, HERRIALDE HAUETAN EDO HAUETARAKO: ESTATU BATUAK, KANADA, AUSTRALIA, JAPONIA EDO DOKUMENTU HAU BANATZEA EDO ARGITARATZEA INDARREAN DAGOEN LEGEDIA EDO ARAUDIA EZ BETETZEA DAKARREN BESTE EDOZEIN HERRIALDE.**

## LEGE-OHARRA

Jakinarazpen hau publizitatea da, ez liburuxka bat edo horren baliokidea. Jakinarazpen hau edo honen zati bat ez da edozein kontratu sinatzeko oinarria edo inolako konpromisorik onartzeko proposamena (eta ezin da harekin lotuta aipatu edo halakotzat hartu). Dokumentu honek ez du eskaintzarik eta ez da saltzeko eskaintza bat, ez eta Euskaltel Saren ("Sozietatea") baloreak ("baloreak") erosteko edo harpidetzeko eskaintza baten eskaera bat ere, Estatu Batuetan, Australian, Kanadan, Japonian, Hegoafrikan edo beste edozein jurisdikziotan. Dokumentu hau ez da diru- edo balore-eskaera bat edo beste edozein ordain-motaren eskaera bat, eta ez da onartuk honi erantzunez bidalitako edozein diru-mota, balore edo beste edozein ordain. Baloreak ezin dira eskaini edo saldu Estatu Batuetan, *US Securities Act of 1933* erregistroaren pean egon gabe, haren aldaketak kontuan hartuta ("*Securities Act*"), edo *Securities Act*-ren erregistroko baldintzen salbuespenik edo hura bete behar ez duen operazio baten salbuespenik gabe. Baloreak ez dira erregistratu eta ez dira erregistratuko *Securities Act*-en pean, ez eta Australiako, Kanadako, Hegoafrikako edo Japoniako balore-merkatuetako legeen arabera ere. Salbuespenak salbuespen, baloreak ezin dira eskaini edo saldu Australian, Kanadan, Hegoafrikan edo Japonian edo Australiako, Kanadako, Hegoafrikako edo Japoniako edozein herritar edo biztanleri edo haien kontura edo onurarako ari diren pertsoneri. Sozietateak ez du asmorik eskaintzaren zatiren bat Estatu Batuetan erregistratzeko, ez eta Estatu Batuetan baloreen eskaintza publikorik egiteko ere.

Dokumentu hau pertsona hauei bakarrik dago zuzenduta: (i) Erresuma Batutik kanpo dauden pertsonak, (ii) inbertsioen gaitan esperientzia profesionala dutenak, edo (iii) *The Financial Services and Markets Act 2000 (Financial Promotion) Order 2005*-eko 49(2) artikuluko (a)tik (d)rako ataletan aipatzen diren pertsonak ("*high net worth companies, unincorporated associations etc*") edo legez beste modu batera jakinaraz dakiekeen pertsonak (eragindako pertsona horiek guztiek ezin dute jardun dokumentu hau oinarri hartuta). Jakinarazpen honetan aipatzen den edozein inbertsio edo jarduera eragindako pertsonen eskura bakarrik dago, eta eragindako pertsonekin bakarrik sinatuko dira.

Gertaera garrantzitsu hau iragarki bat da, eta ez da informazio-liburuxka bat; beraz, dokumentuko informazioa ez da hartuko baloreen eskaintza gisa. Inolako inbertitzailek ez luke iragarki honetan aipatutako akziorik erosi behar, baldin eta Sozietateak Espainiako Balore Burtsetan bere akzioak negoziatzeari buruz argitaratutako informazio-liburuxkako informazioa kontuan hartuta egiten ez badu. Informazio-liburuxka hori 2015eko ekainaren 19an onartu zuen Baloreen Merkatuaren Batzorde Nazionalak. Inbertitzaileek besteak beste gune honetatik har dezakete liburuxka horren kopia bat: [www.cnmv.es](http://www.cnmv.es).

2003/71/EB Direktiba aplikatu duen EEGko edozein estatutan (aldatua izan den moduan eta edozein estatu kidetan ezarri beharreko edozein neurriekin batera, *Liburuxken Direktiba*) jakinarazpen hau estatu kide horietako inbertitzaile kualifikatuei bakarrik zuzentzen zaie, Liburuxken Direktibaren esanahiaren arabera.

**DOKUMENTU HAU EZIN DA BANATU ETA ARGITARATU EZ OSORIK EZ ZATIKA, EZ ZUZENEAN, EZ ZEHARKA, HERRIALDE HAUETAN EDO HAUETARAKO: ESTATU BATUAK, KANADA, AUSTRALIA, JAPONIA EDO DOKUMENTU HAU BANATZEA EDO ARGITARATZEA INDARREAN DAGOEN LEGEDIA EDO ARAUDIA EZ BETETZEA DAKARREN BESTE EDOZEIN HERRIALDE.**